



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-07-18

VIIURTEA 1.757 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Plazaolako Partzuergoak atzo aurkeztu zuen '2009ko uda oihanaren bihotzean' gida Lekunberrin. N. URBIZU

Leitzaldea ezagutzeko gida kaleratu dute 6



Jon Unanuek, Maialen Abaigarrek eta Arantxa Urkizuk aurkeztu zuten atzo 'Euskaldunen errebotea'. A. IMAZ

Erreboteari buruzko liburua, kalean,

Ezker abertzaleak Zizurkilgo Udalean «irregulartasun larriak» daudela salatu du 4



'Sustraietatik adarretara' da Aranburun ikusgai dagoen lanetariko bat. E. EZEIZA

'Pelex'-en lanean txalaparta ardatz

TOLOSA 'Hotsez hots' eskultura eta margolan bilduma ikusgai dago egunotan Aranburun 3

13. GARAGARDO AZOKA

UZTAILAREN 16TIK - 19RA


Ordutegia
18:00etatik 1:00etara

VILLABONA



Hiru aukera ematen ditu aste honetan ibilbideak: lehena, leuna, Baliarrain igo gabe; bigarrena, Baliarrain igota eta azkena, gogorrena, itzuleran Aldabara igoz Tolosara heldu aurretik.

Alegia- Ikaztegieta- Baliarrain



JOXEMI SAIZAR

Bilduma honen hasieratik esan genuen ibilaldi leunak eta errazak proposatu nahi genituela, baina gure eskualdean beti ez dela posible bere orografiatik.

Oraingo honetan hiru aukera ematen dituen ibilbidea dakarkigu sail honetara: Alegia- Ikaztegieta-Baliarrain, azken herri hau igo gabe leundu daitekeena (ia osorik bidegorritik egiteko modukoa, nahikoa laua) eta Aldaba erantsiz gogortu daitekeena.

Tolosatik abiatuz (distantziatarako beti Trianguloa hartzen dugu abiapuntutzat) bidegorritik joan gaitzke lasai-asai San Frantzisko pasealekua, Iurreamendi, Usabal kiroldegia, Arzabalza eta Alegiraino. Norentzat da bidegorria: oinezkoentzat ala txirrindularientzat? Betiko galdera. Arzabalzan dagoen seinaleak bientzat dela jartzen du, baina aurrerago beste seinale batek txirrindularientzat dela dio. Askotan galdetzen dute baita ere abiadura mugarik ba ote den. Nik dakidala ez. Hasieran Tolosan bertan muga bat jarri zutela uste dut. Baina hor logikak eta errespetoak funtzionatu behar duela iruditzen zait. Oinezkoak (eta haur patinatzaile talde bat tokatu zitzaidan) dabilzan leku batean ezin da txirrinduz esprintak egiten ibili. Abiadura bizian ikusi izan ditu txirrindulari taldeak.

Txintzarrien herria Karmen jaietan izango da lerro hauek argia ikusterakoan. Ez da aukera txarra. Baina urte osoan ere badu zer ikusia herri honek: San Juan bataiatzailearen eliza (garai batean festak sanjoanetan egiten omen ziztuzten eta gero aldatu), udaletxea,



Atari soro frontoi berri eta ederra eta eliza ikus daitezke Gipuzkoako herri txikienean, Baliarrainen. JOXEMI SAIZAR

Iñaki Begiristain kirol-kultur etxea (horrelako bakarra, hemen inguruan behintzat), Zubi zaharra, Gurutze Santuaren ermita, ... Bada aukera Alegian.


Baliarraingo aldapa gogorra

Alegitik Ikaztegieta ere bidegorria dugu, eta errepidean (GI-2131) oso trafiko gutxi. Beraz, biak erabiltzeko modukoak dira. Ikaztegieta San Lorenzo eliza, udale-

tarte bakarrak Ibiur urtegiko zelaia izanik. Nahikoa gogorra, beraz. Asuncion eliza txukunduta, udaletxea obretan eta Atari soro frontoi berri eta ederra ikus daitezke Gipuzkoako herri txikienean (orain gutxi arte Oresa zen).

Ausartentzat, 300 metroko desnibela Aldabara

Itzulera bide beretik egitea beste aukerarik ez dago. Oraingoan jais-



teko izango dugu aldapa gogorra eta ondoren zelaia Tolosaraino. Aldabara igotzeko aukera hautatzen badugu, Alegia baino zortzi-rehun metro lehenago hartu behar dugu ezkerretara eta lau kilometro

Eliza, udaletxea, Zubi zaharra, Gurutze Santuaren ermita, ... bisita daitezke Alegian

Ikaztegieta berriz eliza, udaletxea, eskola, Pilarko Andra Mariren ermita eta kiroldegia ikus daitezke

ditugu Tolosako auzora, eskualdeko gehienentzat ezezaguna.

Ia hirurehun metroko desnibela gainditu beharko ditugu hemen, 370 metroara aurkitzen baita auzo honetako plazatxoak: frontoia eta taberna eta aurreraxeago ezkontzeka hainbeste erabiltzen den ermita ezaguna, Txindokiko ikuspegi ederra duena.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN** agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Egurra da lan guztien oinarrian dagoen materiala, baina hala ere, hau teknika ezberdinen bitartez landu ditu; baita beste material batzuekin osatu ere. E. EZEIZA



Txalaparta da 'Hotsez hots' bildumaren ardatza. E. EZEIZA



'Joxe Andrex' izeneko eskulturak ematen dio ongi-etorria bisitariari. E. EZEIZA

Suhiltzaileen etxerako sarbidea hobetu dute larrialdi kasuetarako

Gizartea » Trafikoa kudeatzeko, seinaleak eta semaforoak jarri dira inguruan, oinezko nahiz ibilgailuentzat.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Esku Hartzeko eta Suhiltzaile Parkeak Kudeatzeko Zerbitzuak zenbait herritako suhiltzaile etxeetarako sarbideak hobetu ditu, tartean, Tolosarako. Hala, seinalizazio eta balizamendu lanak egin ditu, larrialdietako irteeren segurtasuna hobetzeko asmoz. Jarri diren seinaleak argi seinaleak dira (semaforoak eta panelak), horrela, ibilgailuak suhiltzaile etxetik ateratzen direnean bakarrik piztuko dira, gidariak ez daitezen ohitu eta ez daitezen jaramonik egin gabe igaro.

Oriako suhiltzaile etxea Tolosako Iurre auzoan dago, N-I errepideko 434 lotunearen biribilgune-tik 70 metro ingurura dagoen bi noranzkoko udal bidean. Bide horrek nahiko zirkulazio du; Usabal kiroldegira eta Iurre auzora sartzeko erabiltzen da. Ikuspena ona bada ere, bidearen zabalera eta trafikoaren dentsitateak arrisku egoerak sor ditzakete larrialdietako irteeretan. Hori dela eta, bi semaforo jarriko dira ibilgailuentzat, noranzko bakoitzean bana, eta beste bi, oinezkoentzat eta bizikletentzat.

Tolosakoarekin batera, Eibarko Arraten eta Legazpiko Korostin egin dituzte aldaketak.



Semaforo berriak jarri dira. HITZA

Ttakuna artean isladatuta

Kultura » Luis Elexpe 'Pelex'-en eskultura eta margolanak ikusgai dira Aranburu Jauregian. Txalaparta da bere lanen ardatz nagusia.

ERREDAKZIOA

Udahonetan Tolosara etortzen diren bisitariak nahiz bertakoek zerbait gehiago dute ikusteko, Luis Elexpe *Pelexen Hotsez hots* erakusketa, hain zuzen ere. Hiru urtetan egindako eskultura eta margolanak ekarri ditu bilduma honetan usurbildurrak. Aranburu jauregi-ko aretoa astelehene-tik larunbatera dago irekita, 17:30etik 20:30era. Abuztuan berri, egunero, 17:30etik 19:30era.

Ibilbide laburra baina oparoa

Duela hiru urte hasitako egitasmoaren emaitza da da *Pelex* artistaren *Hotsez hots* erakusketa. Txalaparta hartu du ardatz eskulturak egiteko garaian. Horretan eragina izan dezake, bera ere instrumentu hau jotzen ikasten aritua dela. Jexux Artze izan zuen irakasle, eta bilduma honetan, gogora ekartzen ditu poeta eta txalapartaren aitzindari diren anaiak.

Bere obra guztia erakusten duen

lehen aldia da hau. Bertan, era askotako materialak erabili ditu, baina lan guztien oinarrian dago egurra. Egur hori, gero, teknika ezberdinen bitartez landu du, eta bestelako materialak osatu du. Esaterako, burdina, altzairua, brontzea, harria, soka, zumea... Hala, material horien guztien bitartez, txalapartari mugimenduak jaso nahi izan ditu.

Kolorearekin ere jolasten du *Pelex* bere artelanetan. Hauekin irudikatu nahi izan du txalapartaren eboluzioa. Horretarako, egin dituen eskultura eta koadro batzuei zahar itxura eman nahi izan die eta kolorerik gabeak dira. Beste batzuetan, berri, kolore asko ba-

liatu ditu gaurkotasuna adierazi nahian, kolore hotzak eta beroak uztartuz.

Artistak ikusita, txalapartaren gaia jorratzean, bere baitan eboluzio bat zegoela materialaren aldetik, eta jotzeko moduak ere aldatu egin direla. Berak ere gauza bera egitea erabaki zuen. Horrela, materialak eta notak uztartzen ahalegindu da.

Artze ez ezik, duela gutxi zenden Mikel Laboa ere ekarri du gogora bere azken lanetan usurbildurrak. Bere musikarekiko duen zaletasuna dela eta, beti dago presente bere lanetan. Horren lekuko da, Laboa hil zen egun berean egin zuten margolana.

Iragarki laburrak

LANA

■ Bigi garbitasunak.

Garbiketa orokorrak, obra bukaerako garbiketak, bulegoak, etxeak, moketak eta alfonbrak egiten ditugu. Interesatuak deitu inongo konpromisorik gabe ondorengo telefono zenbakietara: 638 94 46 04ra (Gurutze) edo 695 70 82 71ra (Belen).

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Triangulo kafetegia

GAUR, Larunbata, hilak 18, zuzendaritza berriak Triangulo kafetegia berriekiko du.

Plater konbinatuak, ogitartekoak, pintxoak, zumo naturalak,...

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633



Ezker abertzaleko kideek prentsaurrekoa udaletxearen aurrean eman zuten. I. GARCIA

Udalan «irregulartasun larriak» daudela salatu du ezker abertzaleak

Zizurkil » EAJ-Alkarbide taldeak azken hilabeteetan «muga guztiak gainditu» dituela gaineratu du ezker abertzaleko kideek.

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Udalan «irregulartasun larriak daudela» salatu zuen Zizurkilgo ezker abertzaleak herenegun arratsaldean eginko agerraldian. Azken hilabeteetan, EAJ-Alkarbide udal taldeak «muga guztiak gainditu» dituela adierazi du ezker abertzaleetik. «Herriari bizkar emanda karguak hartzea nahikoa ez eta irregulartasun bezetako kudeaketa» daramatela diote. Hiru puntu nabarmendu zituzten agerraldian: «Batetik, profesionalen kaleratzea, langileak presionatzea bestetik eta kontratazio irregularrak eta mesedekeria azkenik».

Profesionalen kaleratzearen inguruan, ezker abertzaleak azaldu zuten, «udal gobernuak, oposizioi inongo alderi direkin hitz egin gabe, Nerea Etxeberria admi-

nistrazio orokorreko teknikaria botatzea erabaki zuen apirilean». Hautaketa azterketa gainditu ostean sei urtetan Udalaren aholkularitza juridikoa egiten jardun duela azaldu dute eta «profesional bikaina dela» onartu dituela «udal langile guztiek eta alkateak berak ere».

Udalak kaleratzea «krisi ekonomikoarekin arrazoitu» dutela diote eta «horretarako inork sinatzen ez duen txosten bat aipatzen dute». «Aitzakia ekonomiko hori, ordea, gezur hutsa da», gaineratzen dute. Teknikariaren kostua urtean 57.000 eurokoa zela eta orain 70.250 euro gastatzea aurreikusuten duela Udalak kanpoko jendea kontratatuz aholkularitza lana egiteko azaltzen dute. «Garbi dago, beraiek kontratatutako kanpo aholkulari menpekoak eta esanekoak nahi dituzte, nahierara aukeratuak, funtzionario profesionalen ordezkari». Diotenez, egun Udalak «gutxienez bi kanpo aholkulari eta aholkularitza bat» dituela kaleratutako teknikariak egin beharreko lanak egiten. «Herriarrak babesik gabe gaude Udalak

egin dezakeenaren aurrean, ez dago kontrol lanik», salatzen du ezker abertzaleak.

Kontrol lan horri buruz, Elbarrena etxebizitzaren proiektua ekaritzen dute gogora: «Pilar del Valle abokatuak eraman du kudeaketa, lau urtetan 80.000 euro kobratuz. Gainera, emaitza kaxkarrak begi bistan daude». Eta hori guztia «funtzionarioen kontroletik ihes egiteko» egiten duela diote. «Orain, teknikaria kaleratuta zer gerta litekeen pentsatze hutsak beldurra ematen du».

Langileak presionatzea «onartezina» dela diote

«Langileak presionatzearen» adibiderik garbiena «udal idazkariarekin gertatutakoa» dela dio ezker abertzaleak. Teknikariaren kaleratzea aztertu behar zuen ekainaren 15eko bilkurara eramandako idatzia «argigarria» dela diote. «Idatzi horretan Udaleko idazkariak atzera botatzen du aurretik, ekainaren 10ean idatzitako txostena, non teknikaria kaleratzearen alde egiten zuen», zehazten dute. Idatzi horretan jasotakoa azaltzen

du ezker abertzaleak, «alkatearekin eta gobernu taldeko zinegotzietan izan zuen bileran Iñaki Goikoetxea abokatuak idatzitako txostena sinarazi zioten, teknikaria kaleratzearen alde egiteko». Berak aurkeztutako idatzian, idazkaria kaleratzearen aurka azaltzen dela diote, «teknikaria kaleratzea kalte handia litzatekeela nabarmenduz, azken urteetan funtzionamendua hobetzeko ezinbestekoa izan delako bere lana».

Ezker abertzalearen iritziz, «honek guztiak argi uzten du zertarako nahi dituzten kanpoko aholkulari eta enpresak kontratatu, euren nahi dutena idatz dezaten soilik». Gaineratzen dutenez, «onartezina iruditzen zaigu langileak presionatzea» eta galdetzen dute: «Horrela badabilta langile bat kaleratzeko, zere ez dute egingo milioika euro jokoan dauden proiektuekin?».

Zizurkilgo Udala «kontratazio irregularraren erreina» dela dio ezker abertzaleak eta «zenbait kasutan mesedekeria zantzu argiak» daudela. Hainbat adibide zehaztu zituzten agerraldian. Hala, datuen babeserako legea betearazteko Cycma enpresa «lehiaketa publikorik gabe» kontratatu zutela diote. Bestalde, aseguru etxeak kontratatzerakoan «ez zen merkeanaren alde egin, legeak agintzen duen gisan». Azkenik, INEMek urtero langileak hartzeko ematen dituen laguntzekin eskualdeko zerrendan agertzen ez zen langile bat hautatzea zalantzan jartzen dute. «Mesedekeria kasu batean aurrean gaude?», galdetu dute eta gaineratu: «Susmo hori areagotzen du jakiteak INEMen zerrenda horretan aurrez Udalan aritutako langile bat zegoela, posturako langile egokiena zirudiena».

«Kezkaz eta amorruz» ikusten dutela Udalaren egoera diote ezker abertzaleak. Udalan egoera ekonomikoa «ezin txarragoa delako» kezkatuta daudela diote eta «profesional onak galtzen ari gare-lako eta herriak beharrezko dituen proiektuak geldituta daudelako». Amorrua azaltzen dute, «herriak hautatuak ez izan arren lotsagabei egiten ari direlako aipatutako guztia, lehen alderdiari, alegia, guri, jaramonik egin gabe». Ezker abertzaleak gaineratu duenez, «ez gara isilduko eta herriarrak informatzeko eta behar den guztia egiten jarraituko dugu».

San Huberto Txapelketa eta Uso-tiro Txapelketa asteburuan

ERREDAKZIOA

Jai egunetatik kanpo, baina Villabonako Santioko festen egitarauan azaltzen diren bi ekitaldi izango dira asteburuan, biak Behar-Zana elkarteak antolatuta. Gaur, 09:00etan hasita, San Huberto XI. Txakur Lehiaketa antolatuta dute Belabieta mendian.

Bihar, 10:00etan hasita, Pablo Lasaren omenez XXXI. Uso-tiro Txapelketa irekia izango da Otelarreko Izar zelaian. Bi saio izango dira. Bat 10:00etatik 13:00etara eta bestea 16:00etatik 18:00etara.

Euskal Jaiak afaria

Hilaren 25ean larunbatez burutu-ko da herriko plazan Euskal Jaiak 2009, Santio jaien baitan *Dantzatzu eta kantari eutsi euskarari* lelopean. Bertan egitarau zabalago izango da: joaldunak, soka dantza, sagardo eta pintxo dastaketa, Herria kantuz eta erromeriak... Aurten ere afari herrikoa antolatuta dute eta bildotsa burruntzian izango da erdatza. Txartelak salgai daude 25 eurotan ohiko lekuetan. Afaria alaitzen Lizartzako Isk&bilba txaranga izango da.

Laburrak

Euskal Jaiak antolatzeko hurrengo bilera 21ean

ANOETA • Euskal Jaiak antolatzeko hurrengo bilera hilaren 21ean izango da, datorren asteartean. 19:00etan elkartuko dira udal-txean. Herriko taldeei eta herriar orori bertan parte hartzea animatzen zaie.

Maider Oviedoren argazkiak ikusgai Ostatuan

HERNIALDE • Hernialdeko Ostatuan erakusketa jarri du ikusgai Maider Oviedo argazkilaria. Bere argazkiak ikusi nahi dituenak Ostatuan irekita dagoen ordutegian joan daiteke.

2009E PLANAREN MEMENTOA DA CITROËN MEMENTOA DA



CITROËN C4 HDi 11.600€tik



CITROËN C3 HDi | C1 GAMA 8.600€tik | 6.100€tik



CITROËN XSARA PICASSO HDi 12.600€tik



CITROËN C4 SEDÁN HDi 15.500€tik

CITROËN LANGABEZI ETA GAINERA %0ko MATRIKULAZIO ZERGA: KONFIDANTZAZKO PLANA: ESTALDURA OPARI C1 | C2HDi | C3HDi | C4HDi 90/110 FAP/110 CMP FAP



Gaur Espainiako Halterofilia Txapelketan ariko dira Danenakoak

Villabona » Pasa den uztailaren 4an Donibane Lohitzuneko Altxkadi Trofeoan lehen postua lortu zuen taldeak.

ek; hala, Igor Sasiain izan zen irabazlea; bigarren ere Iker Hernandez izan zen eta hirugarren postua, berriz, Francisco Gonzalezek eraman zuen. Denboraldi bikaina ari dira burutzen kirolariak.

ERREDAKZIOA

Danena Halterofilia taldeko pultsulariak sariak batu eta batu ari dira. Azkenak, pasa den uztailaren 4an lortu zituzten, Donibane Lohitzuneko Altxkadi Trofeoan, hain zuzen ere. Bertan lehen postuak izan ziren Villabonakoentza, taldeka zein bakarka.

Hala, taldekako sailkapen orokorrean, lehen postua Danenako Iker Hernandezek, Igor Sasiain eta Francisco Gonzalezek lortu zuten 192,50 puntu lortu zituelarik.

Bigarren sailkatuak Arabako Indarra taldekoak izan ziren (161,60 puntu); brontzezko postuan Zarautz taldea geratu zen (119,40 puntu) eta laugarren eta bosgarren postuak Mont de Marsan (82 puntu) eta Colomiers (66,20 puntu) taldeentzat izan ziren, hurrenez hurren.

Lehen hiru postuak Danenarentzat

Banakako sailkapen orokorrean ere lan fina egin zuten Danenako-

Gaur, sei ordezkari

Atsedetik hartzeko tarte handirik gabe gaur Gijonen (Asturias, Espainia) Espainako Banakako Halterofilia Txapelketa jokatuko dute eta, noski, Danena Halterofilia taldeak parte hartuko du bertan. Hain zuzen ere, Iker Hernandez, Igor Sasiain, Teddy Martinez, Jon Sasiain, Francisco Gonzalez eta Javier Aramburu pultsulariek ordezkatuko dute Danena taldea.

» ALTXKADI TROFEOA

Taldeko sailkapena

1. Danena.

Igor Sasiain, Iker Hernandez, Francisco Gonzalez (192,50).

2. Indarra (Araba).

161,60

3. Zarautz (Gipuzkoa).

119,40

Banakako sailkapena

1. Igor Sasiain.

2. Iker Hernandez.

3. Francisco Gonzalez.



Batis Kortajarena (entrenatzailea), Igor Sasiain, Iker Hernandez eta Francisco Gonzalez. HITZA

Dena dago ikasliburuetan

ikasliburu guztiak eskuratzeko:

ekar www.ekar.com



ARRASATE • BILBAO • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • HERNANI • IRUN • IZURBA • TOLOSALDEA

Erijuaren aurkako I. mendi lasterketa
I. EUSKAL HERRIKO IGOERA BERTIKALEN ZIRKUITUA
AZPEITIA 2009ko Uztailak 26
Goizeko 10:00-etan

ZUZENIEN

EUSKAL HERRIKO IGOERA BERTIKALEN ZIRKUITUA
Ataridun: www.berriak.com
www.azpeitia.com
Luzana Arak: www.berriak.com



Pirata txikienak aparretan borrokan

ALEGIA ● Puzgarriren eta aparren txanda izan zen atzo Alegian. Haurrek gozatzeko aukera izan zuten eskolako patioaren inguruan. Leheneik salto batzuk eginez eta pedalak astinduz, eta gero aparren pean. Batzuk bainujantzia soinean zuten eta 13:00ak aldera hor zeuden, aparra egin zain. Zeruari begira egingo zuten ondorengo haur bazkaria: 80tik gora elkartu

ziren. Gaur arrantzan ariko dira goizean batzuk, 09:00etan hasita. eta 18:30ean hasita herri kirol jaialdi handia dute Larraizko plazan. Gaur Gaztetxekoek zahagi ardoarekin zabalduko dute (edo jarraituko dute) jai eguna, 20:30etik aurrera. Gaztetxean 00:00etan Erantzun, Burux Lee eta Arrautz ustelak taldeen kontzertuak izango dira. ESTI EZEIZA

Ingurua hobe ezagutzeko programa aurkeztu du Plazaolako Partzuergoak

Leitza » '2009ko uda oihanaren bihotzean' gida berriari Leitzaldeko hainbat txokori buruzko informazioa biltzen da.

NEREA URBIZU

2009ko uda oihanaren bihotzean gida aurkeztu zuen atzo Plazaola Partzuergo Turistikoak. «Gure ingurua ezagutzera emateko», bisita gidatuen inguruko programa bat da eskuorria. Honetan, bisita gidatuen egitarauak eta hainbat jarduerara antolatutako dituzte, tartean Leitzaldeko kultura ezagutzeko eta gozatzeko.

Bestetik, *Plazaolako bidezidorrak* ere aurkeztu zuten. Bazen aurretik bidezidorren liburuxkaren bat baina orain berri egin dute, deskripzio testuak, mapak eta argazkiak gehituz.

«Eskualdera zetorren jendeak ekintza gehiago nahi zituen inguruan, gauza gehiago ikusteko edo, eta hau proiektu pilotoa izango da». Honenbestez, kulturari, naturari eta etnografiari gehiago erreferatu diote eta bisitatan ere hori azpimarratu dute.

la aste osoa antolatuta

Kulturari dagokionez, argitaratu duten informazio orrian Leitza eta Areson zera azpimarratu dute: Peru-harri edo harriaren parkea Leitza (Iñaki Perurena), Leitzako herrigunea eta Aresoko eliza eta herria bera. Naturari begira, Leitzalarreari leku berezia egin



la aste oso batean zehar bisita daitezkeen txokoen programa bat prestatu dute. Goian, Maitena Ezkutari Plazaola Partzuergoko kudeatzailea, Xabier Zabalo Leitza alkatea eta Eneko Agirre Astizko kobatako kudeatzailea. N. URBIZU

diote gidan ere. Monumentu Natural izendatutako izei zuriak bisitatu daitezke bertan.

Bisitaldiak dira, eta alde zuretik ordua eskatu beharko litzateke, ekintza bakoitzerako dagokion telefono zenbakira deituta. Ekintza guztiak dute aseguru. Bisita batzuk *Dohainik* dioten ikurra jartzeko agiri eta horrek esan nahi du seina euroko deskontua izanen dute pertsona bakoitzeko, ostaluetan banatzen diren bonuak erakutsiz gero.

Gida honen bitartez ia aste oso bat osatu dute, hau da, egunero zerbait ikustea proposatzen da. Beraz, naturaz gozatu daitezke, animaliez, paisaez eta aldi berean ere

ikasi daitezke. Adibidez, Kristina Saralegiren baserrian taloak egiteko aukera dago eta ondoren hauek jateko ere. Beharrezko tresneria bertan dago.

«Krisiari aurre egiteko bidea»

Nafarroako Gobernuak krisiari nolabait aurre egin nahian, bonu batzuk atera ditu turistarentzako. Bisitarien modu honetan hainbat leku prezio bereziagotan ikusi ahal izango dituzte eta beste batzuk dohainik.

Memento honetan «zerebait berezia antolatutako, gure kultura eta inguru naturala indartzen duen bisita gidatuen programa hau».

'Plazaolaren bidexkak' ibilientzat proposak

Plazaolaren inguruko zazpi ibilbide ere aurkeztu zituzten. «Oinez ibili eta haran eta mendietako natura, kultura eta paisaia ezagutu nahi dituztenentzat proposak dira hauek.

Gerta daitezke esku-orri hauetan deskribatutako bideetan aldaketak gertatzea, lurraldearen erabilera eraginda. Horregatik gomendatzen dugu ibilbideak egitean ahal izango diren bideak: Aralarko San Migel, Albasuko behatokia, Goikozuloa, Basaburuko atek, Iribasko iturburuak, Kornietako parke eolika eta Leitzalarrea,

» ASTEA ANTOLATUTA

■ **Asteazkenetan.** Kristina Saralegiren Arro baseria Leitza. Azienak... Ondoren, talogintza-tailerra eta horiek dastatzea. 11:00etan. 610 378 543.

■ **Astegunetan.** Etxarrin Bikain gaztandegia. 12:00etan. 948 50 4117 / 696 923 434.

■ **Ostiraletan.** Lekunberriko alde zaharra bisitatzeko. 18:00etan. 948 50 72 04.

■ **Larunbatetan.** Peru-harri parkea bisitatzeko (11:00etan), 659 70 10 45. Arratsaldean, bertan, Leitzalarrea eta Leitzalarrea. 17:00etan. 948 50 72 04.

■ **Igandetan.** Aresoko eliza eta herria bera (11:00etan), 948 50 72 04. Leitza Peru-harri ere ikus daitezke (11:00etan).

hain zuzen. Denek datu interesgarriak ematen dituzte, oinarrikoenetatik hasita: errepideen zailtasuna eta hainbat gomendio tartean.

Kornietako parke eolika Ibilbide labur bezala izendatu dute (marra horia eta zuria). Orrialde batean mapa ageri da, egin behar bidea markatuta eta metroak zehaztuta. 10 kilometro eta erdikoa da eta hiru ordutan egin daitezke. Sei kilometro eta erdikoa da eta baso horietan haritz gaitz eta mitiko baten hondarrak ezagutu ahal izanen dira. Izan ere, 1888an bota zuten ekaitz batek, eta inguruari ondorio izena eman zuten: Aritzaundi. Ikus daitezkeen zioen artean 45 metrora iristen den baten barbadago.

Errebotearen misterioa agerian uzten duen liburua aurkeztu dute

Villabona » 'Lekukotzak' bildumaren 8. alea aurkeztu zuten atzo egile, argitaratzaile eta babesleek.

ASIER IMAZ

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak *Lekukotzak* bildumaren 8. alea argitaratu du. Amasa-Villabonako udaletxean atzo aurkeztu zuten ale berria eta bere izenburua *Euskaldunen Errebotea* da.

Argitalpenaren egileak, Jon Unanuek, pilota mota hau «ahalik eta modu didaktikoenean eta grafikoenean» azaltzen saiatu direla aipatu zuen; «pare bat aldiz irakurri ondoren eta partida pare bat ikusita, errebotearen misterioa zein den ulertu ahal izateko».

«Kirol ondasun ederra»

Jon Unanuek argitalpenaren atala eta kirol honen ondasun izaera aipatu zituen aurkezpen ekitaldian: «Eskualde osoan eta oro har Euskal Herrian dugun kirol ondasunik ederrenerikoa da errebotea. Baina gaur egun galtzeko zorian dagoen pilota mota bat da. Larramendi Bazkunaren ustez, Villabonaz gain, Euskal Herriak galtzen utzi ezin duen kirol eta kultur ondare bat da. Horregatik, errebotearen alde egiten diren edo egin litezkeen ahalegin guztiak bi-

deragarri dira, joko mota honekin aurrera egiteko».

Liburuaren atalei dagokienez, egileak behin eta berriz honen izaera didaktikoa aipatu zuen. *Euskaldunen Errebotearen* lehen zatian, sarrera gisa, pilota mota honen historia aipatzen da modu laburrean. Gaur egun non jokatzen den azaldu ondoren, argitalpenaren mamia dator: *Nola jokatzen da?*

Galdere honi erantzuna emateko asmoz, errebotearen «susper-tzaile nagusienetako» baten lanak hartu dituzte oinarritzat, Teodoro Hernandorena zizurkildarrarenak hain zuten ere: «Duela 70 urte eman zituen azalpenak baliatu ditugu obra honen lehenengo zatian, hitzez hitz, errebotean jendea nola jokatu behar den azaltzeko».

Bigarren zatian, Hernandorenen idatziak sortzen dituen zalantzak argitzen saiatu dira. Azken orriari dagokienez, *Nori berea* atalean, kirol honen alde lan egin duten pertsonaiei eta elkartei «omenealditxo» egiten zaie.

Argazki eta irudi landuak

Pilota mota hau erraz ulertzeko aukera bikaina eskaintzen du *Euskaldunen Errebotea* liburuak. Ulermen hori errazagoa izan dadin, arauez gain, irudiei ere garrantzi handia eman diote Manuel Larramendi Kultur Bazkunatik, argazki eta grafikoek bitartez.



Larramendi Bazkunako kideak Jon Unanue eta Arantxa Urkizu. Erdian Udaleko zinegotzia, Maialen Abaigar. A. IMAZ

'Euskaldunen Errebotea' doan lortzeko hainbat aukera

Villabona » Larramendi Bazkunako kideek errebotea jokatzen den herrietara zabaldu nahi dute argitalpena.

A. IMAZ

Lekukotzak bildumako 8. alea, *Euskaldunen Errebotea*, lortu nahi duenak aukera desberdinak edukiko ditu eskura. Manuel Larramendi Kultur Bazkunako kideak, Arantxa Urkizuk, azaldu zuen argitalpena nola banatuko duten: «Alde batetik *Aiurri* aldizkariarekin batera zabaldu da. Bestalde, Villabonan, Bear-Zana Elkartean Udaletxean eta Periodistanean eskatzeko aukera egongo da. Dohainik lortu ahal izango da. Horretaz



'Lekukotzak' bildumaren 8. alea: 'Euskaldunen Errebotea'. A. IMAZ

gain saikera berezi bat egin nahi genuke, gaur egun errebotea jokatzen den herri guztietara helarazteko. Gipuzkoan, Villabonaz gain, Zubietan, Oiartzunen eta Azkoi-

eren ere banatu nahiko genuke. Gero bai Lapurdira, bai Behere Nafarroara eta bai Xiberoara ere helarazten saiatuko gara, ea lortzen dugun».

Astebete atzeratu dute Plazako finala

Leitza » Atzo jokatu behar ziren herriko Binakako Txapelketaren azken partidak baina eguraldiak ez zuen utzi.

A. IMAZ

Leitzako XVII. Plazako Binakako Txapelketaren azken partidak ez ziren jokatu atzokoan, eguraldi txarra medio.

Banakako Txapelketa herrikoia, plazan jokatzen dena, gaur jarriko dute martxan.

Azken partidak hilaren 24an

«Aste guztian eguzkia egin du eta gaur justu eurria» aipatzen zuen finala jokatu behar zuen pilotarietarikoa batek. Izan ere, Leitzako XVII. Plazako Binakako Txapel-

ketaren azken partidak atzo jokatu behar zituzten. Euriak ordea plazako frontoia busti egin zuen eta horrela pilotan ibiltzea «ezinezkoa» zen.

Hirugarren eta laugarren postuaz gain, finala jokatzeko asmoz lau bikote agertu ziren 19:00etarako plazara. Egoera ikusita, partidak hurrengo ostiralera atzeratzea erabaki zuten.

Plazako Txapelketaren irabazleak nortzuk diren beraz, hilaren 24an jakingo da. 19:00etan hasiko da lehen partida eta bertan, 3. eta 4. postuaren lehian, Asier Garzia-Larraia eta Zubillaga-Zubillaga arituko dira. Finala berriz, Joanes Zeballos-Mikel Iriartek eta Igor Aldaia-Unai Olanok jokatuko dute.

Bestalde, Plazako Banakako Txapelketa gaur arratsaldean jarriko omen dute martxan.



Aurtengo Plazako Txapelketaren irabazleak hurrengo astean jakingo dira. Irudian 2006ko finalistak. JAIONE ASTIBIA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordeak: Iñigo Terradillos. **Kudeatzaileak:** Maider Garaikoetxea.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldeak: 687 410 032. ibarraldeak@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdeak: 687 410 034. alegialdeak@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Alegia.** Karmen jaiak: Arrantza lehiaketa eta diana 09:00etan, sargardo dastaketa 12:00etan, herri kirolak 18:00etan Larraitz auzoan eta Dj Makala 00:30ean.

Zinema

■ **Tolosa.** Breve encuentro filma emango dute Leidor aretoan 22:30ean, jatorrizko bertsoian.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Udako liburategia Usabai igerilekuan, astelohenetik larunbatera 15:00etatik 19:00etara.
■ **Villabona.** Gaztelekuaren inguruan ideia eta iritzien topaketa Katea Etxean (hautzaindegi zaharrean) 11:30etik 14:00etara.
■ **Villabona.** Garagardo Azoka Jesusen Bihotza ikastolan, 18:00etatik 01:00etara.

Erakusketak

■ **Hernialde.** Maider Ovidoren argazki erakusketak ostatuan.
■ **Tolosa.** Karlos Irazuren Kolpe Kolpe eskultura eta egurgintza erakusketak eta Pelex artistaren Hotsez Hots eskultura erakusketak Aranburu Jauregian.

Kirolak

■ **Tolosa.** Abuztuaren 1etik 13ra Santiago Bidea bizikletaz kostatik, Tolosatik abiatuta, kiroldegietan lo eginez eta otorduak jatekietan eginez. Izen-ematea, 687 568258 (Fernando) eta 664 129216 (Lus M.) telefonoetan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Alurr, euskal dantzak zabalduz

Ibarra » Munduko Musiken eta Dantzen Nazioarteko Folklore Jaialdian ari da parte hartzen dantza taldea.

ERRERAKAZIOA

Alurr Dantza Taldea Isoire (Frantzia) herrian ospatzen ari den Munduko Musiken eta Dantzen Nazioarteko Folklore Jaialdian parte hartzen ari da, Isoireko 22. Jaialdian, hain zuzen. Bihar arte bertan egongo dira.

Ibarrako taldearekin batera Txile, Kenya, Paraguai, Martinika, Haiti, Eslovakia, Birmania eta Bresse (Frantzia) herrietako taldeak, nahiz koskoen talde bat parte hartzen ari dira Isoireko Jaialdian. Lehen egunean desfileen parte hartu zuten gainerako taldeekin batera. Ordubetekoa izan zen su artifizialak eta dantzaldia eta gutzia.

Asteazkenean, bertako irratian-stand-era joan eta Alurr Dan-

tza Taldearen nondik norakoak jakinarazi zizkieten bertako esatari.

Gauean, berriz, Birmania eta Haitiko taldeekin batera emanaldia eman zuten XII. mendeko baselizaren atarian. «Gau giroa eder-za zen. Ikus-entzuleak gustura geratu ziren, gure erritmo, indarra eta koreografiek», azaldu dute taldeko antolatzaileak. Dantzari gazteak aritu ziren, izan ere, 12 urte-16 urtera bitarteko dantzariak joan dira Isoireko Jaialdian.

Herenegun Isoireko udal-estean egin zieten harrera talde guz- tiei, eta Alurr taldeko dantzari bat- tek bertako alkateari Agurra dan- tzatu zion.

Isoireko Jaialdiaren antola- tzaileak «oso gustura omen dau- de» Alurr Dantza Taldearekin, «tradizioa eta modernitatea uzta- rten egin duten lana dela eta». Tal- deko arduradunek azaldu dutenez «frantziarrek ere egungo beste es- tilo batzuekin nahastu nahi dituz- tela beren dantza tradizionalak».



Txile, Kenya, Paraguai, Martinika, Haiti, Eslovakia, Birmania eta Bresseko dantzariak ere ari dira parte hartzen jaialdian, Alurrekin batera. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Garazi Alkain Gorostidi (Amezketak). Gaur 3 urte. Zorionak etxekoan partetik, bereziki Aratz eta osaba Josebak.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Nahi duzun tokira
eramango zaitugu
uda honetan



GARMIN nüvi 200 GPSa

Harpidedun egin zaituz eta lortu doan GPS hau

- Kioskoan baino %10 merkeago eskuratuko duzu.
- Goizero etxean, lantokian, zure eguneroko kioskoan duzula ziurtatuko dizugu.
- Gure promozioetan (disko hitz-jumak, liburuk, mendiko gidak...) jarraitzea bezero- gozatzeko aukera izango duzu.
- Astero-astero harpidedunen artean opariak banatzen ditugu.
- Martingorri larunbatero 16 orrialdeko gehigarri koloretzua haur eta gazteentzat.
- NORA bidaiak abidikaria hiltzetero BERRIAREkin.
- ...

Animatu! Merez du

HARPIDEDUNAKO:
943 90 43 45 • harpidetza@berria.info

ALKATEA EZAZU,
BIZI EUSKARAZ
berria

**berria bekak
2009**

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **zortzi beka**, horietako bat, bideo informatiboak lantzeko.

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**.

Ezaugarriak:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoain duen egoitza nagusian edo ordezkaritzetan

Ezaugarriak:

- Harnabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoain duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko azken eguna: 2009-09-08
Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragarri

Aukera ezazu, BIZI EUSKARAZ **berria**

*Urte osoko harpidetza